

1. ESKOPETAK:

Gogoratu aurten atrezzoko eskopetekin aterako garela eta ezingo dela beste motako eskopetarik eraman. Eskopeta baten bila bazabiltza Irailak 7 15:00ak baino lehen korreo elektronikoki bidez egin dezakezu erosi edo alkitatzeko eskaera jaizkibelkonpainia@gmail.com. helbidera idatziz. Gure sareetan topatuko duzue beharrezko informazio guztia.

2. IRAILAK 8 ORDUTEGIA:

Goizean:

- 6:45 Zezen plaza
- 7:45 Alamedan

Arratsaldean:

- 16:45 Sainduan

3. JARRAITZAILEENTZAT MEZUA:

Irailak 8an ikusle bezala zatozen horri, MILA ESKER. Urtetik urtera geroz eta gehiago zarete Jaizkibel babaestera eta txalotzera zatoztenak eta zuei esker bidea xamurragoa eta ederragoa da. Hementxe duzue plano bat gure ibilbideen nondik norakoak ezagutzeko. Irailak 8an, beti bezala eguna lasaitasunez pasatzen ahaleginduko gara baina badakigu Kale Nagusia bereziki gogorra izan daitekeela. Bertaratzeko asmoa baduzu, ez erori probokazioetan. Kide ezberdinak izango dituzue inguruan eta babestu zaitez haietan. Inguruan baten bat gaizki pasatzen ari dela ikusten baduzu, lasaitu ezazu. Gure altxorrik onena elkarri ematen diogun babes da. Desfilea ikusi ondoren, gu beste hainbat kaletan ikusteko asmoa baduzu, EZ ETORRI GURE ATZETIK mesedez, bilatu bestelako kale katoi, bide, espaloi... zure bidea egiteko. Beste behin ere mila esker, saiatu gozatzen eta elkar ikusiko dugu Hondarribiko kaleetan zehar.



4. ARAUAK

Jaizkibelek bide luzea egin du urte guzti hauetan. Pausu handiak eman ditugu eta inoiz baino gehiago gara. Horregatik, ezinbestekoa da denen lankidetzaz. Denok gara Jaizkibel eta taldearen garapena, denon ardura da, norberaren ekintzak, taldearen ispilu diren modu berean.

Recuerda:

1. Musika eta lerroak dira gure funtsa. Ez utzi inoiz musika jotzeari.
2. Bidearen hasiera eta bukaera arduradunek adieraziko dute.
3. Gure konstantzia da gure indarra. Egin dezagun bide osoa **DUINTASUNEZ. PROBOKAZIOEI KASURIK EZ.**
4. Txilibituetan doazen hurrek arduradun batekin joan behar dute. Jaizkibel ez da edozein konpainia eta guztien artean handiena izateaz gain, bidearen zati batzuetan egoera deserosoak eta kritikoak bizitzen ditugu. Jaizkibel soilik kubero moduan doazen hurrez arduratuko da.
5. Konpainia osoa iristean egingo dugu goxokien deskarga, goizean Guadalupen eta arratsaldean merienda lekuan. Ez da mendaria hasiko goxokien deskarga egin arte.
6. Zapateroa, Gipuzkoa plazan joko dugu. Adi arduradunei!!!
7. Jakingo duzun bezala gu autofinantzatzen gara, eta horregatik behar beharrezkoa dugu zuen kolaborazioa. Poltsa hiru momentuetan pasako dugu; goizean goiz kantineraren etxean, autobusa hartzerakoan eta mendarian. Egin zure ekarpena!
8. Gainera, mendarian zehar borondatea uzteko botetxo batzuk egongo dira.
9. **GORA JAIZKIBEL!!!**

JAIZKIBEL KONPAINIA
"Norberaren ekintzak denon ardura"
Zorionez, gero eta gehiago gara. Hona hemen funtzionamendu egokirako lagungarriak izango zaizkigun ezinbesteko arauak

			
Musika da Jaizkibelen ardatza. Ez utzi jotzeari	Lerroatzeaz eta pausoa mantentzeaz arduratu	Haur txilibitoak heldu baten ardurapean joan behar du.	Arduradunen seinaleetara eta esanetara erne egon.
		JAIZKIBEL KUBEROEZ ARDURATUKO DA.	
Probokazioei KASURIK EZ	Goxokien deskarga ondoren dator mendaria.	Autogestionatzen gara. Poltsa pasatzen ikustean, parte hartu mesedez.	Zatoz umorez eta jatorki emakumeen parte hartzea aldarrikatzera eta ospatzera